



GOBERNU BATZARRA
2023.09.19

Alkatea:
Angel Martinez de Rituerto Arregi

Bertaratutako zinegotziak:
Kristina Pelaez Errazkin

Ander Figuerido Zubiria

Aitor Agirresarobe Murgi

Ez dira bertaratu:
Goiuri Ezeiza Arandia

Estitxu Kortejarena Ugarte

Idazkari akzidentala:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko irailaren hemeretziaren, 9:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2023ko irailaren 5koa.

2. Onartzea lankidetzaren hitzarmena, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako erakundearen (HABE) eta Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiaren artekoa

3. Dekretu hauen berri ematea:

2023/2025 Dekretua: 2023/37 faktura zerrenda.

2023/2073 Dekretua: 2023/38 faktura zerrenda.

1. AKTA HAU ONARTZEA:2023KO IRAILAREN 5KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA LANKIDETZA-HITZARMENA, HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEAREN (HABE) ETA TOLOSAKO AITZOL UDAL EUSKALTEGIAREN ARTEKOA

AURREKARIAK

HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak dirulaguntza-deialdi berri bat sortu du, helburutzat hartuta 16-18 urteko ikasleek euskarazko C1 maila



(EGA) lortzea. Ikasleek urrats hori egitea errazteko, dirulaguntza-sistema aldatuko du: ikasleek 20 euro ordainduko dituzte matrikulan, eta gainerako zatia HABEK hartuko du bere gain, zuzenean euskaltegiari ordainketa eginda. Ikaslearen kudeaketa euskaltegiak egingo du, eta, konpentsazio gisa, ikasleko 3 euroko ordaina jasoko du. HABEko zuzendariak 2023ko uztailaren 12an emandako ebazpenean zehaztu dituzte baldintzak (EHAA, 2023-07-31).

Aitzol Udal Euskaltegiak, egitasmo horretan parte hartu ahal izateko, hitzarmena sinatu behar du HABErekin. Helduen euskalduntze-alfabetatzearen curriculumarekin bat etorrita, Aitzol Udal Euskaltegiak 16 urtetik gorako herritarrentzat eskaintzen ditu euskara-eskolak, eta, horrenbestez, eskolatu dezake egitasmo berriak jomuga duen xede-taldea (16-18 urte).

Egitasmoak aukera zabal dezake ikasleen euskara-gaitasuna areagotzeko eta lan-aukerak handitzeko, eta, hortaz, hitzarmena sinatzea proposatu du Euskara eta Hezkuntza Sailak.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- Hitzarmena izapidetzea.

Hitzarmenak izan behar duen edukia 40/2015 Legean, urriaren 1ekoan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenean, dago arautua. Honako hau dio 49. artikulua: *Aurreko artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren hitzarmenek barnean hartu beharko dituzte gai hauek, gutxienez:*

- a) Hitzarmena sinatzen duten subjektuak, eta alderdietako bakoitzak zer gaitasun juridikorekin jarduten duen.*
- b) Zer eskumenetan oinarritzen den administrazio publikoaren, hari lotutako edo haren mendeko organismo publikoen eta zuzenbide publikoko entitateen edo unibertsitate publikoen jarduketa.*
- c) Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduketak, lortutako emaitzen titulartasuna azalduta, hala badagokio.*
- d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago; haien urtekako denbora-banaketa adierazi beharko da, bai eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona ere, aurrekontu-legeriak xedatu duenaren arabera.*
- e) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoen ez betetzeari aplikatu beharreko ondorioak, eta, hala badagokio, ez betetzeetik ondoriozta daitekeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.*



f) Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta sinatzaileek beren gain hartutako konpromisoei aplikatzekoak. Mekanismo horrek ebatziko ditu hitzarmenak direla eta planteatzen daitezkeen interpretazio- eta betetze-arazoak.

g) Hitzarmena aldatzeko araubidea. Arau espresurik ez badago, sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da hitzarmenaren edukia aldatzeko.

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:

- 1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.
- 2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.

Lege beraren 50. artikulua, hitzarmenak sinatzeko nahitaezko izapideei eta haien ondorioei buruzkoak, honako hau dio:

1. *Autonomia-erkidegoetako legeriak aurreikus ditzakeen berezitasunak gorabehera, hitzarmenak justifikazio-memoria bat beharko du, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz bestelako izaera, eta lege honetan aurreikusita dagoena betetzea.*

BIGARRENA.- Hitzarmena onartzeko organo eskuduna.

Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio hitzarmena onartzea. Horrela ezartzen du, izan ere, Tolosako alkateak emandako 2023/1707 Dekretuak, uztailaren 3koak:

Alkatetzak eskuordetzea legeriak ematen dizkion ondorengo eskumenak Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari:

5.-Lankidetzak Hitzarmenak: Beste Administrazioekin edo pertsona fisiko eta juridikoekin lankidetzak hitzarmenak onartzea, ondoko legeen aplikazio-eremutik kanpo geratzen direnak: 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen eta 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa, eta horiek garatzeko arauak

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan izanik udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU



LEHENA.- Onartzea HABEren eta Tolosako Udal Euskaltegiaren arteko hitzarmena. Dena den, onarpena baldintzatuta geratzen da Udaltzaren 2023 urteko Ordenantza Fiskaletan, Euskaltegiako C1 mailako ikasleen ordainketa kopuruak aldatzeari .

Hitzarmenak ondorengo edukia du:

LANKIDETZA-HITZARMENA, HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEAREN (HABE) ETA TOLOSAKO AITZOL UDAL EUSKALTEGIAREN ARTEKOA, AZKEN HORI ERAKUNDE LAGUNTZAILE IZAN DADIN 2023-2024 IKASTURTEAN C1C1 KOMUNIKAGAITASUN-MAILA LORTZEKO PRESTAKUNTZA HARTUKO DUTEN 16-18 URTEKO IKASLEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZESUAN.

Hitzarmen hau gauzatu eta sinatzeko **ELKARTU DIRA:**

Bingen Zupiria Gorostidi jauna, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, HABEren presidente gisa.

Garbiñe Marzol Ormazabal andrea, Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiaren ordezkaria.

PARTE HARTU DUTE:

Alde batetik, Bingen Zupiria Gorostidi jaunak, HABEren izenean eta ordezkapenez, 14/2017 Dekretuak, urtarrilaren 10ekoak, xedatutakoaren arabera.

Bestetik, Garbiñe Marzol Ormazabal andreak, Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiaren legezko ordezkari gisa, HABEren euskaltegien erregistroan ageri denez.

Alderdi biek hitzarmen hau izenpetzeko eskumena eta gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, hori dela-eta, ondokoa

ADIERAZI DUTE:

- 1.- HABEk euskara sustatzeko hainbat ekintza eta programa bultzatzen ditu, euskara ikasteko ahalegina egiten duten pertsoneri laguntzeko neurriak jarritz.
- 2.- HABEren zuzendariaren 2023ko uztailaren 12ko Ebazpenaren bidez, helduen euskalduntzea sustatzeko xedez 2023-2024 ikasturterako dirulaguntzen deialdia onetsi zen, zeinaren xedea baita bultzatzea 16-18 urteko ikasleek erakunde laguntzaileetan C1 komunikagaitasun-maila lortzeko prestakuntza hartzea. Prozeduraren organo instrukziogilea eta kudeatzailea HABEko ikuskatzailetza arloa izango da eta ebazteko arduraduna, HABEren zuzendaria.
- 3.- Deialdi horretako zazpigarren oinarriak erakunde laguntzaileekin aritzeko aukera aurreikusten du, deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuen eskaerak kudeatu eta izapidetzeko.
- 4.- Erakunde laguntzaileek kudeatu eta izapidetuko dituzte matrikulatutako ikasle onuradunek egindako eskaerak.



- 5.- Erakunde laguntzaileek neurriak hartuko dituzte, dirulaguntzaren onuradunek dirulaguntzak emateko baldintzak (adina, ordainketa ziurtatzen duen ordain-agiria eta taldearen C1C1 helburu maila, bereziki) betetzen dituztela bermatzeko.

HORREGATIK GUZTIAGATIK, dirulaguntzen 38/2003 lege orokorrak 12,13,15 eta 16. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik eta 2023ko uztailaren 12ko HABEren zuzendari nagusiaren ebazpeneko zazpigarren oinarriari jarraikiz, bi aldeek ADOSTU DUTE HITZARMEN HAU SINATZEA, ondorengo klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hitzarmen honen xedea da HABEren zuzendariaren eta Tolosako Aitzol Udal Euskaltegia erakunde laguntzailearen arteko lankidetzaren bidea ezartzea, 16-18 urteko ikasleek erakunde laguntzaileak antolatuko dituen C1C1 komunikagaitasun-maila helburu duen ikastaroetan parte hartzeagatik 2023-2024 ikasturtean jasoko dituzten dirulaguntzak kudeatu eta izapidetzeko.

Lankidetzaren 2023-2024 ikasturterako da eta hitzarmena indarrean dagoen bitartean eman daitezkeen laguntzak kudeatzeko.

Bigarrena.- Erakunde laguntzailearen betebeharrak

1) Erakunde laguntzailearen eginkizuna izango da HABEren zuzendariaren 2023ko uztailaren 12ko Ebazpenaren bidez ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona matrikulatuaren eskaerak kudeatu eta izapidetzea (Q87 aplikazioaren bidez) eta HABEren zuzendariaren kontura jardutea.

2) Erakunde laguntzaileak lau epe izango ditu HABEri deskontua ezarriko zaien ikaslearen eskari guztien zerrenda ziurtatua aurkezteko, bere agiri osagarriekin (matrikula orria izenpetua, NAN eta ordain-agiria). Horretarako Q87 aplikazio informatikoan igo beharko ditu datuak eta agiriak erakunde laguntzaileak. Lau epe-muga hauek izango dira (HABEren zuzendari nagusiaren uztailaren 12ko ebazpenaren zazpigarren oinarriaren laugarren atalaren arabera) :

-2023ko urriaren 1etik abenduak 5 arte

-2024ko urtarrilaren 1etik martxoaren 15 arte

-2024ko apirilaren 1etik ekainaren 10 arte

-2024ko uztailaren 1etik irailaren 13 arte.

Hirugarrena.- Dirulaguntza ikasleari emango zaio, matrikularen zenbatekoa ia osotasunean izango baitu diruz lagungarria, salbu 20 euro. Ikaslearen matrikularen prezioaren gainerako zatia, hau da, ikaslearentzako hobaria, erakunde laguntzailearen bidez kudeatuko da eta erakunde laguntzaileak jasoko du ikastegi bakoitzean matrikulatutako onuradunen kopuruaren arabera, HABEren zuzendariak 2023 uztailaren 12an onartutako ebazpenaren 7.4 oinarriaren, bederatzigarren oinarriaren eta hamargarren oinarriaren ildotik.



Laugarrena.- 3 euro ezarriko dira konpentsazio ekonomiko gisa erakunde laguntzailearen alde, kudeatutako eta onartutako matrikula bakoitzeko. Honetarako, erakunde laguntzaileak ikasturte amaieran faktura aurkeztuko beharko dio HABEri.

Bosgarrena.- Erakunde laguntzaileak arau hauetan ezarritakoa bete beharko du: 38/2003 dirulaguntza lege orokorra, urriaren 30eko 40/2015 legea.

Seigarrena.- Aldeek datu pertsonalen babesari buruzko araudia bete behar dute, onuradunei buruz lortutako datuei dagokienez, eta haiek eman beharreko baimena eman behar diete datuok erabiltzeko.

Zazpigarrena.- Hitzarmen honek urtebete iraungo du sinatzen den egunetik aurrera, eta ez da modu automatikoan luzatuko.

Hitzarmen honen xedapenak guztiz edo partez aldatu ahalko dira, aldeek hala adosten badute; halaber, aldeetarik edozeinek salatu ahalko du hitzarmena, hiru hilabete lehenago jakinarazita, eta hala gertatuz gero, aldeek hitzarmenaren dute konpromisoei eutsiko dietela onuradunei emaniko laguntzen aldi guztia bukatu arte.

Zortzigarrena. Hitzarmen hau suntsiarazteko kausa dira hitzarmenean ezarritako klausulak ez betetzea, eta orobat hitzarmenaren izaerari dagokion beste edozein kausa ere, indarrean den legerian jasota badago.

Bederatzigarrena.- Araubide juridikoa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa dauka, eta araubide juridiko-administratiboa erabiliko da hura interpretatu eta garatzeko; izenpetzaileek berariaz men egiten diote administrazio auzietarako jurisdikzioari.

Hitzarmen honetan erabakitzen ez diren alderdi guztietan, ondorengo arauetan ezarritako xedapenak aplikatuko dira: 38/2003 dirulaguntza lege orokorra, urriaren 30eko 40/2015 legea

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, partaideek honako dokumentu hau izenpetu dute digitalki.

Erakunde laguntzailearen ordezkaria
Garbiñe Marzol Ormazabal

HABEren presidentea
Bingen Zupiria Gorostidi

BIGARRENA: Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena aurrera eramateko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.



HIRUGARRENA- Hitzarmena argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki-taulan, Gardentasun Atarian eta Tolosako Udalaren webgunean.

3. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2023/2025 DEKRETUA: 2023/37 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/2025 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko ESTITXU KORTEJARENA UGARTE andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2023ko uztailaren 6ko 2023/1718 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:

37. zenbaki duena, 244.790,59 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau



EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

37. zenbaki duena, 244.790,59 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkaria naizen honek, ziurtatua, Tolosan sinaduran agertzen den datan

Nire aurrean

Zinegotzi delegatua

Idazkaria

Estitxu Kortejarena Ugarte

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2023/2073 DEKRETUA: 2023/38 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/2073 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko ESTITXU KORTEJARENA UGARTE andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2023ko uztailaren 6ko 2023/1718 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.



21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:

38. zenbaki duena, 221.372,08 eurokoa.

Zerrenda honetan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

38. zenbaki duena, 221.372,08 eurokoa.

BIGARRENA.- *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkaria naizen honek, ziurtatua, Tolosan sinaduran agertzen den datan

Nire aurrean

Zinegotzi delegatua

Idazkari akzidentala

Estitxu Kortejarena Ugarte

Karmele Contreras Goikoetxea



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0019

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 9:30ean.

ALKATEA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxa: 943 69 75 10 - e-mail: udate@tolosa.eus

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESK0bbdcbe21-2bdb-43eb-b176-7a8f6084b04c**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IGBA0019-2023-09-19 Gobernu batzarra akta/2023-09-19 Gobernu